

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**BIZKAIKO
ESPERIENTZIA
GELAK
AULAS DE LA
EXPERIENCIA
DE BIZKAIA**

IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA: [EL NUEVO LENGUAJE ECONÓMICO](#)

Irakaslea/Profesor/a: **Ana Fernández Sainz**

Ikasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura

Ekonomia da pertsonak gehien erakartzen dituen gaietako bat, bai eguneroko bizitzan duen garrantziagatik, bai inguratzen gaituen mundua ulertzen laguntzen duelako.

Ekonomialariek gero eta leku gehiago hartzen dute komunikabideetan, eta inflazioa, KPI, pentsioak, BPG... moduko gaiak gure hizkuntzaren parte dira. Gainera, ekonomiak, besteak beste, eguneroko bizitza ulertzen laguntzen digu: Zer alde daude Kontsumoko Prezioen Indizearen eta Inflazio tasaren artean?

Erabakiak hartzen ere lagun diezaguke: Zenbat urte eman behar ditugu ikasten? Diru sarreraren zein zati gastatu behar dugu eta zenbat aurreztu? Politika ekonomikoa izan daitekeena eta horren mugak ezagutzeko aukera ematen digu, adibidez: zein da ingurumena babesteko modurik onena?

Gaitasunak/Competencias

Ikasleek gaitasun nagusi hauek eskuratzea da asmoa:

1. Pentsamendu analitikorako eta gogoeta kritikorako gaitasuna.
2. Eskuratutako datuetan oinarrituta, arrazoitutako iritziak emateko gaitasuna.
3. Ahoz eta idatziz jariotasunez komunikatzeko gaitasuna.

Edukiak/Contenidos

1. gaia: Ekonomiaren hamar printzipioak:

1.1 Pertsonen erabakiak nola hartzen dituzten eta elkarri nola eragiten dioten.

Zure informaziorako (FYI): Adam Smith eta esku ikusezina

1.2 Ekonomiaren funtzionamendua.

2. gaia: Eskaintzaren eta eskariaren merkatuaren indarrak

2.1 Merkatuak eta lehia. Zer da merkatua? Zer da lehia?

2.2 Ondorioa: prezioek nola banatzen dituzten baliabideak.

2.3 Eskaintza, eskaria eta gobernu politikak.

3. gaia: Ondasun publikoak eta baliabide komunak

3.1 Ondasun mota desberdinak. Ondasun publikoak.

Free rider-aren (polizoiaren) problema. Ondasun publiko garrantzitsu batzuk.

3.2 Baliabide komunak. Baliabide komun garrantzitsu batzuk.

4. gaia: Bizitzaren kostua neurtzen

4.1 Kontsumoko Prezioen Indizea. Nola kalkulatu da KPIa? BPGaren deflatoarea kontsumoko prezioen indizearen aurrean.

4.2 Aldagai ekonomikoen zuzenketa, inflazioaren ondorioengatik. Interes tasa erreal eta nominalen indexazioa.

5. gaia: Desberdintasunak diru sarreretan eta pobrezian

5.1 Desberdintasuna neurtzea. Mugikortasun ekonomikoa eta soziala.

5.2 Diru sarreraren birbanaketari buruzko filosofia politikoa: utilitarismoa, liberalismoa, aukeramenaren liberalismoa.

5.3 Pobrezia murrizteko politikak: gutxieneko soldadari buruzko legeak, diru sarreraren gaineko zerga negatiboa, gauzako transferentziak, DSBE.

6. gaia: Euskal Ekonomia Ituna eta Kupo

6.1 Ekonomia Itunari buruzko Legea eta Ekonomia Itunaren historia (Esteban Arlucea)

6.2 Itunaren araubidearen oinarrizko ezaugarriak. Itunaren eta araubide arruntaren arteko aldeak

7. gaia: Pentsioak

7.1 Pentsio eredu batzuk. Munduko pentsio ereduak sailkatzeko irizpideak

7.2 Pentsio publikoak eta pentsio planak (pribatuak)

7.3 D'Hondt legea: nola bilakatzen den zure botoa diputatu edo zinegotzi

8. gaia: Portaeraren ekonomia / Psikologia ekonomikoa

Metodologia/Metodología

Metodologia ikasleei eta haien premiei egokituko zaio. Oro har, proposatutako kontzeptu eta gai bakoitza modu errazean azaltzean datza proposatutako metodologia nagusia. Alderdi bakoitzarekin batera, prentsako albisteak irakurriko dira bereziki, kontzeptu bakoitza behar bezala ulertzen dela ziurtatzeko.

Gaien eta/edo kontzeptuen azalpena modu (nahiko) zorrotzean egingo da, baina ikasleen arteko desberdintasunak direla eta, kontzeptu matematikoei dagokienez, nagusiki, oinarrizko bibliografia generikoa oinarri hartuta emango dira azalpenak.

Ebaluazio sistema/ Sistema de evaluación

Ebaluazio sistema ikastegiak berezkoa duena da: eskoletara joatea, ariketak borondatez ebaztea, albisteen iruzkinak...

Bibliografia/Bibliografía

Mankiw, G. (2009): Principios de Economía.

Krugman, P. & Wells, R (2022) Fundamentos de Economía.